

**LEHENENGO  
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA**

*IDATZIZKO AZTERKETA*

# ARGIBIDEAK

 **Hizkuntza eskakizun honen azterketak bi zati ditu:**

## Ahozko azterketa

- Ahozko azterketa, idatziaren ondoren egingo da. Non eta zer ordutan egin behar duzun, irteeran esango dizugu. Hizkuntza eskakizuna egiaztatu ahal izateko, ahozkoa eta idatzia, biak gainditu behar dituzu. Ez zaitez joan, beraz, ahozkoa egin baino lehen.
- Ahozko azterketan elkarriketa izango duzu aztertzaileekin. Egiten hasi baino lehen, haiek esango dizute zeri buruz hitz egin behar duzun. Jakina, zeure euskalkian hitz egin dezakezu eta euskara batuan ere bai.

## Idatzizko azterketa

- Idatzizko azterketak bi ariketa ditu: irakurmena eta idazmena. Bi ariketa hauek egiteko **ordubete eta 15 minutu** izango dituzu.
- Irakur itzazu ariketa bakoitzaren aurrean datozen argibideak, eta bertan jartzen duena egizu.
- Idatzizko azterketaren ariketak boligrafoz egin behar dira; saia zaitez letra txukuna egiten.

## 1. IRAKURMENA

- **Teknika:** Aukera anitzeko galderak
- **Ariketa:**
  - Ondoren testu bat daukazu eta jarraian testu horri buruzko galdera batzuk.
  - Galderei erantzuten hasi aurretik testua arretaz irakurtzea gomendatzen dizugu.
  - Galdera bakoitzarekin batera lau erantzun ematen zaizkizu: a), b), c) eta d). Egokiena aukeratu behar duzu.
  - Erantzuna aukeratzekoan, erantzun-orrian bertan markatu borobil batez a), b), c), edo d).

## HARRI-ZULATZAILEAK

Harri-zulatzailleek Bizkaiko meategietan lan egiten zuten. Dinamita kartutxoak sartzeko burdinazko makila luze batez zuloak egiten zituzten harri handietan. Meatzariak lanbide hura herri-kirol bihurtu zuten, antzinako beste lanbide asko bezalaxe. Batez ere XIX. mendeko azken urteetan, harri-zulatzailleen arteko lehiaketak egiten hasi ziren herri batzuetan.

Hala ere, XX. mendean, aurrerapen teknologikoaren ondorioz, harri-zulatzailleek garrantzia galdu zuten, eta gerra zibila bukatu ondoren, lanbide bezala galdu arren, lehiaketa gutxi batzuk jokatu ziren. Hortik aurrera, urte batzuetan galdu egin zen kirol hori egiteko tradizioa, orain dela urte gutxi Bizkaiko Meatzaldeko gazte batzuk berriro praktikatzen hasi diren arte.

Lehiaketak taldeka jokatzen dira, taldeak hiru pertsonakoak izaten dira eta 20 segundoko txandak egiten dituzte harria jotzeko. Laguntzaile bat ere egoten da, eta horrek esaten die zulatzailleei txanda noiz aldatu behar duten eta harriari ura botatzen dio; izan ere, harria urarekin hoztu behar da zuloa errazago egin ahal izateko. Ordu erdian 10 zentimetroko zulo gehien egiten dituen taldeak irabazten du lehiaketa.

Joko gehienetan gertatzen den bezala, beti egin izan dira apustuak, baita gaur egun ere. Antzina diru askokoak ziren; adibidez, 1883. urtean 1.000 pezetako apustu bat egin zuten La Arboledan (Bizkaia), eta hori diru asko zen garai hartan, XX. mende hasieran harri-zulatzaile batek 4 pezeta irabazten zituelako egun batean. Dena dela, meategietako nagusiek egiten zituzten apusturik handienak, oso aberatsak zirelako.

Guillermo Rodriguez La Arboledako harri-zulatzaile taldeko kideak esaten duenez, 1998an Ortuellako gazte batzuk hasi ziren tradizio zahar hau berreskuratzen. Urte horretan, Ortuellako Euskara Taldeak harri-zulatzaileen erakustaldi bat antolatu zuen eta bederatzi pertsonak hartu zuten parte. Hori ikusita, batzuk kirol honekin jarraitzera animatu ziren, eta gaur egun, 80 harri-zulatzaile eta 10 talde daude Bizkaian, Meatzaldea eta Txorierrin eskualdeetan.

Garai batean Bizkaiko Meatzaldetik kanpo ere egon ziren harri-zulatzaileak. Esate baterako, Bizkaiko ekialdeko eta Gipuzkoako mendebaldeko herri batzuetan, leku horietan meategiak egon zirelako. Markinako harri batzuetan harri-zulatzaileek egindako zuloak daude, eta bertako pertsona zahar batzuk oraindik gogoratzen dira aspaldian harri-zulatzaileen lehiaketak egiten zirela. Hala eta guztiz ere, momentuz, Meatzaldean eta Txorierrin bakarrik lortu dute kirol hau berreskuratzea, Markinan, ordea, ez.

Taldeek ez dute instituzioetatik laguntzarik jasotzen, nahiz eta prestatzeko diruapur bat behar duten, neguan entrenatzeko adibidez. Horretaz gain, harriak ere taldeek eraman behar izaten dituzte lehiaketetara, eta harri bakoitzak 240 euro balio du, gutxi gorabehera. Hori guztia ordaintzeko dirua jaietan egiten diren lehiaketetan lortzen dute, baina askotan ez da nahikoa izaten. Hala ere, animo handiarekin dabilta harri-zulatzaileak kirol hau aurrera ateratzeko asmotan.

**IZASKUN BASTERRETxea**  
**BERRIA, 2004ko apirila**  
**EGOKITUA**

## 1.1. ERANTZUN-ORRIA

- **Irakurgaia:** « HARRI-ZULATZAILEAK »
- **Teknika:** Aukera anitzeko galderak.

### 1. ZEIN DA EGIA?

- a) Beste lanbide asko bezala, harrietan dinamita kartutxoak sartzea herri-kirol bihurtu da.
- b) XIX. mendeko azken urteetan dinamita kartutxoak lehertzeko lehiaketak antolatzen hasi ziren.
- c) Antzinako lanbide asko herri-kirol bihurtu dira, eta horixe gertatu da harri-zulatzailen lanbidearekin ere.
- d) XIX. mendean, dinamitazko makila luzeak egiten ziren harrian zuloak egiteko.

### 2. Zer gertatu zen harri-zulatzailen lanbidearekin?

- a) XX. mendeko aurrerapen teknologikoarekin batera hartu zuela garrantzia.
- b) Gerra zibilaren ondoren jadanik ez zela lanbide moduan egiten.
- c) Orain dela urte gutxi hasi zela garrantzia galtzen.
- d) Gerra zibila baino pixka bat lehenago lehiaketa gutxi egin zela.

### 3. Harri-zulatzailen lehiaketetan...

- a) hiru laguntzaile egoten dira talde bakoitzeko.
- b) ordu erdian ahalik eta zulo gehiena egin behar da.
- c) ordu erdiko 20 txanda egin behar ditu zulatzaile bakoitzak.
- d) txanda luzeak egiten dira, zuloa errazago egin ahal izateko.

### 4. ZEIN DA EGIA?

- a) Antzina ere diru asko jokatzeko apustuak egiten ziren.
- b) Antzina jabeek ez zuten diru askorik jokatzeko apustuak egiten.
- c) Apustuak egiteko antzinako ohitura gaur egun galdu egin da.
- d) Harri-zulatzailak eguneko 1.000 pezeta irabazten zuten XX. mende hasieran.

**5. Nola berreskuratu zen harri-zulatzailen jokia?**

- a) Meatzaldea eta Txorierrri eskualdeetako euskara taldeek erakustaldi bat antolatu zuten 1998an.
- b) Ortuellako bederatzi pertsonak erakustaldi bat egin zuten eta 80 harri-zulatzailen parte hartu zuten.
- c) La Arboledan bizi den Guillermo Rodriguez izeneko gizon batek berreskuratu zuen 1998an.
- d) 1998. urtean egindako erakustaldia arrakastatsua izan zenez, batzuk animatu egin ziren eta aurrera jarraitu zuten.

**6. Meatzaldea eskualdetik kanpo...**

- a) antzina meategiak zeuzkaten herri batzuetan ere harri-zulatzailen zeuden.
- b) Gipuzkoako mendebalde inguruan bakarrik egon ziren harri-zulatzailen.
- c) ez zen meategirik egon gure inguruan, horregatik ez zegoen harri-zulatzailerik.
- d) Gipuzkoako ekialdeko herrietan egon ziren batez ere harri-zulatzailen.

**7. ZEIN DA EGIA?**

- a) Markinako pertsona zahar batzuek beraiek harrietan zuloak nola egiten zituzten gogoratzen dute.
- b) Markinako harri-zulatzailen Txorierrin ibili dira azken urteotan.
- c) Orain dela asko harri-zulatzailen lehiaketak egiten ziren Markinan.
- d) Markinan izan ezik, Bizkaiko beste herrietan ez da harri-zulatzailen lehiaketa egiteko ohitura berreskuratu.

**8. Zer moduz dabilta harri-zulatzailen taldeak diru aldetik?**

- a) Normalean nahikoa izaten dute lehiaketetan lortzen duten diruarekin.
- b) Gauza askotarako ez dute dirurik behar, adibidez, neguan entrenatzeko.
- c) Instituzioek 240 euroko laguntza eman diete harriak ordaintzeko.
- d) Harriak ordaindu eta entrenatzeko dutena baino gehiago behar dute askotan.

## 1.2. ZUZENKETA-ORRIA

- **Irakurgaia:** « HARRI-ZULATZAILEAK »
- **Teknika:** Aukera anitzeko galderak.
- **Baremazioa:** 5 erantzun zuzen edukitzea eskatzen da.

### ERANTZUN ZUZENAK

|    |   |    |   |
|----|---|----|---|
| 1. | C | 5. | D |
| 2. | B | 6. | A |
| 3. | B | 7. | C |
| 4. | A | 8. | D |

## 2. IDAZMENA

- **Teknika:** INPRIMAKIA
- **Oharrak:**
  - Hurrengo orrialdean agertzen den inprimakia bete behar duzu.
  - Letra garbia eta txukuna egiten saiatu.

**GAIA:** Bidaia batetik itzuli zara hegazkinez. Aireportuan maletak hartzera joan zara, baina ez dira ageri. Maletak galdu egin dira.

Aireportuko arreta-zerbitzura joan zara eta idatziz erreklamazio bat egin behar duzula esan dizute.

Idatzi erreklamazio-orrian zure kexa eta zer eskatzen duzun azaldu.

*Oharra: ariketa egiteko, hurrengo orrialdean agertzen den inprimakia erabili.*

